

- **Kirola:** Antxintxika krosa azaroaren 5ean izango da
- **Entzutekuak:** Laguntza sozialen murrizketez Ongizate Batzordeburuarekin

sora luzeko
hamabostekaria **251.** alea
2011ko urriaren 14an

@pil-pilean



52 klik

V. udako argazki
lehiaketan



*Izan direlako
gara...*



Iragana **gogoratu** dezaten bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten bizi izan ez zutenek

Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera,
Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!

Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!

Astebetean itzuliko dizkizugu!




Harategia

Enkarguz
eskatutako janaria ere
prestatzen dugu

HARATEGIA

Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarreak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 esk.
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE




JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLEINTXIKETAREI
GUGXN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI



EGUZKIÑE ALDAZABAL



GORKA PRIETO

GALDERAK ETA ERANTZUNAK FALTA ZIRENEKOA

Zer moduz Gorka? Udazkeneko eguzkitan bero -bero? Uda azkena baino, uda jarraipena da hau, udako eguzkia urrutitik ikusi dugunontzat aldaketa klimatikoaren opari gozoa bezain susmagarria... “*Galdetu egin behar da..jendeak ez du galdetzen*”... izan da nere “entrenatzaile pertsonalak” esan didan azkena, eta horren ingurukoa nere ondoko gogoeta. Kri-siak biluztuko ditu aurten zuhaitzak eta gainerakoak, eta *behelaino artean moroak* garenok etorkizuna lausotuta ikusten dugu... Institutuan nengoela hango psikologoak emandako aholkua “*egin arkitektura, lan asko dago eta*”, *txakurraren salara* bidaliko nuke orain. Amak bidalita, joana naiz noiz-bait sala horretara, urruti dago oso, ezerezaren erdian galduta, eta inoiz garbitu ez den txakurraren kiratsa dario... Egia da, lan faltarik ez dagoela zertan lan egin inporta ez zaionarentzat... baina *udajarraipen* hau bezain lekuz kanpokoa da igerilekuko garbitzaile den ingeniaria eta komertzial diharduen fisikoa. Lanbideko aholkulariarengana joan (orain *coaching-ak* dira, gimnasiokoak ez, bulegoetako entrenatzaile pertsonalak), eta zertaz ohartu naiz: ez dut nahikoa galdetu! Ez zer ikasi, ez zertan lan egin, ez nola, non, eta zergatik. Institutuko entrenatzaile hark galdera behar zuen erantzun ahal izateko, eta ni gaztegia nintzen galdera asmatzeko... Gorka, ez dakit zu galdera zalea zaren ala ez... baina ofiziotzat galdetzea hartu behar baduzu, hemen beste aholku bat: hartu mugikorrenko tarifa on bat, pazientzia, denbora... eta noski, bidean ez erotzeko, yoga klaseak!

“*Udajarraipen hau bezain lekuz kanpokoa da igerilekuko garbitzaile den ingeniaria*”

Eguzkiñe Aldazabal

“*Ez dituzte arkitektoak nahi supermerkatuko kaxan, ez*”

Gorka Prieto

Iepa Eguzkiñe! Galderak direla eta ez direlako horretan, gaur egun falta direnak erantzunak direlakoan nago bada ni. Ekonomiaren joera, gobernuen jokabidea, langabeziaren nondik norakoa, justiziaren irakurketa anitzak... Galdera asko erantzun gutxiarekin alegia. Argi dago ez duela inork etorkizuna iragarriko duen kristalezko bolatxorik, baina gaur egun bizi dugun ezegonkortasun soziala benetan kezkatuta egoteko modukoa dela deritzot. Ez da komeni izenik ematerik, baina seguru batek baino gehiagok ezagutzen duela etekinik ez galtzeko produkzioa (edo bere zati handi bat) atzerrira eraman duen euskal enpresaren bat. Errekuperazio ekonomikoaren izenean beti, enpresek galerak murriztu eta ekonomia ez ahultzeko dela diote. Baina nola lortuko da hori, enplegua sortu beharrean produkzioa kanpora aterata? Nola kontsumituko dugu gehiago, ekonomia berpizteko (kontsumoa baita ekonomia motorra), langabezia tasa altu hauekin? Zenbat galdera eta zein erantzun gutxi. Gainera, Eguz, zuk diozun bezela, oso prestatua egotea ere desabantaila izan daiteke. Demagun unibertitate gradua izan, hiruzpalau hizkuntza menperatu eta espezialitate batekin osatu duzula zure kurrikuluma. Bada, hortxe arazoaren kokka... beste lan xumeren batera (baina beste edozein bezain duinera) aurkeztu nahi izanez gero, kurrikuluma nahita hustu beharko zenuke... Ez dituzte arkitektoak nahi supermerkatuko kaxan, ez. Beraz, badakizue, hustu zuen kurrikuluma lan bila hasi aurretik, sistema kapitalistaren gainbehera zantzuak dituen egoera honetan eguneko ogia irabazi nahi baduzue behintzat!

Goguan hartzeko

Ehun eroren sinestea baino, zuhur baten ustea hobe.
Gotzon Garate



GUTUNAK

Nik lan eta hik jai

Duela 519 urte iritsi ziren espainiarrak Mundu berria deritzena zapaltzera lehenengoz. 1492ko urriaren 12a zen. Hona askoz lehenago iritsi ziren. Kolonizazioa han, kolonizazioa hemen.

Ikaragarria da urriaren 12a Mexiko iparreko mugatik hasi eta Ushuaiaraino jai egiten dutela. Dia de la raza, dia de la hispanidad, hemen Pilarica. Noiz hasiko gara zinezten geure etorkizunean? Jai egun de-


nak kristauak eta kolonizatzaileenak ditugu. Inoiz ez dugu egin festarik egunero goxotasuna, argia eta berotasuna ematen dizkigun eguzkiarengatik edo Euskararen egunagatik, geure arteko harremanak landu dituen ehundaka urtetan. Hasi beharko genuke geure jai eta festak egiten, kolono eta elizarenak alde batera utzita.

PD.: orain beste jai egun bat dugu... estatutuena. Ja!!

Iñigo Uribeberria



GoZatu SAREAN



paperean ezin daitekeenaz!

BIDEO berriak zintzilikatu ditugu!!!

Nor da nor? Aldizkariko lehiaketako pertsonaia ezkutua nola mozorrotu dugun ikusiko duzu!

“Oroimen Eguneko” ekitaldia edo udalbatzarreko bideoa ikus dezakezu.

ALBISTE interesgarri gehiago!

“Eskolako Agenda 21: Mugikortasuna izango dute azterbide dute herriko ikasleek”.

Alberto Ramirezi elkarrizketa: “Pozik nago aretoak erantzun ona izan duelako zabalik egon den bitartean”.

ALDIZKARIA sarean irakurtzeko aukera!

Aldizkaria argitaratu bezperan, alea interneten irakurri ahalko duzu. Deskargatzeko beharrik gabe eta oso modu erosoa!

...eta etorriko dena!

Udako Argazki Lehiaketako parte hartzaile guztien argazkiak. Eta astelehenero kirol emaitzak, udalbatzarren kronikak, agenda eguneratua, eztabaidatzeko gunea, mediateka...



PII-PILEAN

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribeberria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKEKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Maisuen Etxeak erabiltzeko baldintzak urrian egingo dira publiko

Udal Merkatu Plazako ordenantza arautzailea bozkatu zuten aurreko udalbatzarrean eta aldeko 9 botu (EAJ eta Bildu) eta kontrako 2rekin (PSE-EE) onartu egin zen bertako funtzionamendua eta jarduera erregulatuko dituen ordenantza. Arauok datorren astean publikatuko dituzte GBO eta herritarrek hogeita hamar egun izango dituzte alegazioak egiteko. Jarraian Maisuen Etxeetan egitekoak diren sei etxebizitza sozialen errentariak hautatu eta onartzeko oinarriak aho batez onartu zituzten. Etxebizitza

hauen eskaera nola tramitatu azaroan zehaztuko du udalak.

Errauste plantaren moratoria hizpide

Bestalde PSE-EEK aurkezturiko mozioa, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioarekin loturikoa aldeko 6 botu (PSE-EE eta EAJ) eta kontrako 5 boturekin, onartu egin zen. Sozialistek mozioarekin salatu nahi dute Zubietako erraustegi plantaren moratoriak diru galera handia suposatuko duela herritarrentzako. Azken Osokoa, Aldazabalek esan zuen errauste plantaren moratoria "oso larria" dela eta ez dela "baliogarria". Bilduk, "beste alternatiba batzuk bilatu" behar direla erantzun zuen. Onartutako mozioarekin udalak PIGRUG planak eta honen barnebiltzen dituen hondakinen tratamendurako instalakuntzak babesten ditu, ondorioz hauek gelditzeko egon daitezkeen planteamenduen kontra agertzen da.

Repetunov zirujaua gaur Soraluzen

Alexey Repetunov zirujau, traumatologo eta ortopedak "fribotomia graduala"ren gaineko hitzaldia eskainiko du gaur Zinean arratsaldeko 19:30ean. Repetunov-ek bere lanaz eta Ulzibat teknikaz hitz egingo du. Aipatutako teknikak, besteak beste, burmuineko paralisia edota giharretako lesio kronikoa dutenen bizi kalitatea hobetzen lagundu dezake. Konferentzia gaur bada ere, bihar eta etzi Soraluzen egongo da behar duenari kontsulta pasatzeko edo edozein zalan-tza argitze aldera. Harremanetarako: 677 088 268 (Feli).

Mugikortasuna hizpide ikasleen artean

Ikasturte honetan Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan herriko ikasleek Mugikortasuna izango dute aztergai. Honen helburua ikastetxean, herrian edota eskualdean dauden ingurumen eta gizarte arazoak identifikatzea izango da. Hainbat jarduera edota ekintza burutuko dituzte ikastetxean zein ikastetxetik kanpora: garraiobideen konparaketa, trafikoaren azterketa, herritarrei galdaketak, sentsibilizazio kanpainak.

Mus "relanpago" txapelketako irabazleak

Gudarien omenezko XV. Mus "Relanpago" Txapelketa jokatu zuten urriaren Ilean Arrano Elkartean. Joxe eta Arkaitz Larrañaga aita-seekek eraman zuten lehen saria. Aitor Fernandezek eta Angelua Murgoitioi bigarrena, Aitor Prieto eta Gorka Boyarrek hirugarrena eta Txarra eta Garrok laugarrena.



Lau atxilotu Gilan lapurtzeagatik

Asteheneroko goizeko ordu bietan Ertzainek Gila tabernan lapurreta egiten ari zirenen abisua jaso ostean, lau lagun atxilotu eta epai-learen aurrera eraman zituzten. Tabernako atea fortzaturata eta barruan diru-kaxa eta armairu batzuk zabalik topatu zituzten.



TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

Urriaren 22ko manifestaziora joateko deia

Gernikako Akordioak sinatzaileek urriaren 22an "Euskal Herriak konponbidea nahi du" lemapean Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia egin dute. Akordioari atxikimendua eman zieten herriko eragileek ere bat egin dute deialdiarekin eta autobusak antolatu dituzte herritik, arratsaldeko 16:30ean Errabal kaleko geltokitik. Arrano, Gaztelupe eta Bolia tabernetan eman ahalko da izena. Gernikako Akordioak "Euskal Herrian agertoki demokratiko bat ahalbidetuko lukeen gutxiengo demokratikoak" jasozten ditu.



Debegesak ibaia garbitzeko ekimena antolatu du

Deba eta Ego ibaiak berreskuratzeko boluntarioen programa jarri du martxan Debegasako Garapen Jasangarri sailak. Helburua Deba ibaiak pairatzen duen kutsadura arintzea izango da. Horretarako herritarrez osatutako talde bat eratu nahi dute, azaroaren 6an martxan jarriko dena. Interesa dutenek 943 82 01 10 telefonora deitu beharko dute urriaren 31a baino lehen edo riodeba@debegesa.com helbidera idatzi.

"Soraluze beldur barik" sariak

Soraluzeko Udaleko Parekidetasun Sailak "Beldur Barik" lehiaketan herritarren parte hartzea bultzatze aldera, "Soraluze Beldur Barik" sariak banatu ditu herriko proposamen onenen artean. Lanak aurkezteko epea azaroaren 11n itxiko da. Proposamenak posta elektronikoz berdintasuna@soraluze.net helbidera bidali behar dira. Sariak eta informazio gehiago:



Deba bailarako langabezia tasa altuena du Soraluzek


Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuen arabera, 2011ko bigarren hiruhilekoan %15,29ko langabezia tasa egon da herrian, 297 langabe. Iaz, denbora tarte berdinean baino %2,25 altuagoa izan da (%13,65, 267 lagun). Datu orokorreki begiraturuta, Deba bailarako tasarik altuena du herriak. EAEko (%13,4), Debabarreneko (%13,08) eta Gipuzkoako (%11,64) batzbestekoak ere gairatu ditu.

lean baino 13 lagun gutxiago egon dira aurtengoan enplegurik gabe, 136 denera. Langabe gehien 35-39 urte bitartekoak izan dira, 24 guztira. Zerbitzu sektoreak batu ditu gehienak (47) industria (42) eta eraikuntza (32) sektoreek jarraituta. Emakumeetan datuak ezkorragoak izan dira irailean, iaz baino 9 lagun gehiago egon baitira langabe, 144 denera. 55-59 adin tarteko herritarrak 24 izan dira. Hemen ere zerbitzu sektorean dago langabetu gehien (89), industria sektoreak jarraitua (31). aurretiki enplegatu gabeko 20 lagun.


Erdia baino gehiago emakumeak

Gizonezkoen datuei begiraturuta, hobera egin dute: iazko irai-

2011ko bigarren hiruhileko datuak



2010eko eta 2011ko iraileko datuak Soraluzen



Datuen iturria: Lanbide

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

etxera

MAPFRE

SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jlibarza@infonegocio.com

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Ni baino hobeto daguana... V. udako argazki lehiaketa

Iriber Iriondo
Aipamen berezia



Irune Zubizarreta
IRABAZLEA



Ana Sebal



Pedri Lete

Irene Unanue



Mireia Lamariano




Juan Fernandez



Myriam Goenaga
2. saria

Edurne Orbea

Igor Aldazabal



Aitor Morillo

Cristina Jacas

Luis Ariznabarreta



...txarrrri galanta

ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Bankuekin sinatutako hipotekak ezin ordainduta, gero eta gehiago dira etxebizitzarik gabe euren burua kalean ikusi dutenak. Hori gutxi balitz, bankuek kreditua ordaintzeko geratzen zaien zorra mantendu egiten diete. Ondorioz, kinka larrian laga ditu familia asko eta hainbat herritan indarrak batzen dihardute halako kasu gehiago eman ez dadin.

Ze diñozu etxietatik kaleratziekin gertatzen dabilenez?

NAIARA BERETXINAGA



Gaizki. Etxia galtzen bada zorrak be galtzia litzake justuena. Etxia, galdu aurretik saldu biharko genduke, estremo horretara heldu barik. Baina bankueri ez jakue interesatzen etxiak erosterik, dirua baizik.

JESUS LASKURAIN



Oso gaizki. Zela leike ordaindutako diru dana eta gero, lan bare geratu eta etxia be galtzia? Ezin leike onartu, lotsagarrixa da! Lelengo lagundu, gero lapurretan egitteko. Agintarixak eurak dira lapurrak, jorna ez dabe bajatzen badaezpada!

OIHANE DEL CAMPO




Ez da normala bankua etxiakin geratu eta ondio dirua zor izatia. Etxiakin geratzen badira, ba listo. Legez jasota egon biharko litzake hori eta gobernuak be zeoze egin biharko leuke horri erantzuteko.

TEO RUIZ



Errua bankuena da. Egoeria euren faboreko danian errez emoten dittue kredituak, oin, okertzen danian berriro eskian datoz. Ez dakit zein irtenbide egon leiken, baina zorrak ez haunditziak lagunduko leuke.

Eman zure iritzia sarean 

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETA
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURERAKONTUA

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behea, Sorluze

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



 **KM Desing**

Disceinua eta Formena

Poligono Amillaga, n° 5
Tif.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Jubilatuen gisatu lehiaketa gertu

Urteroko gisatu txapelketa urriaren 27rako antolatu dute Itxaropena Elkarteko lagunek. Goizeko 9:00etarako lapiko eta zartaginak prest izango dituzte eta guztira zortzi bikote arituko dira lehian. Eguerdiko 14:30ean berriz bazkari berezia egingo dute eta herriko 105 jubilatuko batuko dira mahaiaren bueltan prestatutako gisatu goxoak probatze aldera. Arratsaldean bingo joko berezia izango dute.

Gaztañerre prestatzeko deialdia

Galtzagorrixak (Jai herrikoien aldeko Gazte mugimenduak) Santiago-Santa Ana jailetako balorazioa egin berri du. Indarrak hartuta, datorren zitari helduko diote: Gaztañerre Azoka. Gaur iluntzeko 21:00etan kiroldegia gainean batuko dira azoka eguneko prestakuntzeekin hasteko. Deialdia luzatu diete Galtzagorriek herriko gazteei: "Oinguan be mugimendutik Soraruzeko gazterixia bertaratzeko deia eitten dogu!".

**Kultur ekitaldien agenda****Gaur, urriak 14:**

ERAKUSKETA INAUGURAZIOA
Sara Beiztegiren margolanak.
19:00etan Oreka Art galerian.

Oharra: Oreka Art galeriako azken erakusketa izango da.

Informazio gehiago: Plaentxia.com
Ant: Oreka Art galeria

Urriak 21, barixakua:

ANTZERKIA GAZTELERAZ
"Demode Quartet" antzezlan musikatua.

22:15ean Zinean.

Sarrerak: leihatilan salgai 5 eurotan.

Ant: Soraruzeko Udala

Bolondresen animazioa ipini dute Nagusien Egoitzan udan

Ekainean hasi eta irailera bitartean ekitaldi morderketan hartu dute parte Mesedetako Amaren Egoitzako bizilagunek, Gurutze Gorriko eta herriko hainbat bolondres lagun hartuta. Loiolako Basilikan, Debako hondartzan eta Arraten izan dira eta gustura ibili ere bai. Irteerez gain, bestelako ekimen edo jaialdiak ere izan dituzte; abuztuaren esaterako, herriko bi lagunek tango erakustaldia egin zuten egoitzako nagusien aurrean. Denak borobilean jarrita gustu handiz jarraitu zuten tangoaren dotorezia. Mercedes Eguna ere urteroko ospakizun handia izaten da. Goizeko meza bereziaren ostean, luntxa egin zuten eta bazkari berezia jarraian. Irrika handiz hartu zuten arratsaldeko bingo jokoa ere. Arduradunek bolondres lanetan da-

biltzanak zoriondu nahi dituzte: "zuen laguntzarik gabe ezinezkoa delako ekintzok antolatzea". Datorren hilabeteetan bolondresen eskaintako kantu saioak izango dituzte eta Gaztañerre azoka ikusteko irteera ere prest dute egoitzako arduradunek.



Iturria: Mesedetako Amaren egoitza Egoitzakoak Loiolako Santutegian

Irune Zubizarreta Udako Argazki Lehiaketako irabazlea

Hamasei parte hartzaile izan dira aurten Pil-pilean herri aldizkariak antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketan. Aurtengo leloa berritzailea izan da guztiz: "Ni baino hobeto daguana txerri galanta". Parte hartzaileek uda partean argazkiz jasotako momentu goxoak edo egoera inbidia-garriak bidali dituzte eta Kontrargi Argazki kolektiboko lagunek Irune Zubizarretaren erretratua aukeratu dute irabazle. Irunek Huescako Puyarruego lakuan etaratako argazkia bidali digu eta nekazal etxe batean asteburu-pasa

eder bat irabazi du. Bigarren saria Myriam Goenagak jaso du, Colomers-en etaratako argazkiarekin. Zorionak irabazleei eta eskerririk asko parte hartzaile guztiei!



Iturria: Irune Zubizarreta

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Antxintxika krosa patinetan egin ahal izango da

Arrasateko Triatloi taldeak antolatzen duen lasterketa azaroaren 5ean izango da, zapatua, eta Soraluze eta Bergara bitarteko hamar kilometroak patinen gainean egiteko aukera izango da aurten. Froga honek 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte eta izen ematea internet bidez egin behar da derri gorrez azaroaren 3a baino lehen. 700 plaza gordeko dira korrikalariarentzat eta 100 patinatzaileentzat.

Ibilbide bera baina ordutegi bat baino gehiago

Modalitate denak Estazio kuletik abiatuko dira eta helmuga berdina izango dute denek: Bergarako San Martin Plaza. Parte hartzaile denak ez nahasteko baina, gurpildun aulkian lehia izango dutenak 16:30ean abiatuko dira, patinen gainekoak 16:50ean eta korrikalariak 17:00etan. Egun horretan egon daitezkeen norabide aldaketak errespetatzeko deia egin dute antolatzaileek. Izen ematea eta informazio gehiago: www.kirolprobak.com helbidea.

Etxeberria eta Gallastegi Gipuzkoako gomazko paleta txapelketako buru

Joseba Etxeberria eta Jon Gallastegi herritarrek iazko denboraldian 2. mailara igotzea lortu



Iturria: Eulogio Mancebo

eta gero, pozik daude lau partidu jokatu eta laurak irabazi dituztelako. Azkena "Altzarrak" bikotearen aurka jokatu eta 25-22 amaitu zen lehia plaentxiarren alde. Azken garaipen honekin euren taldearen buruan kokatu dira eta zuzenean finalerdiak jokatzeko sailkatu dira. Bigarren itzulia azaroa aldean amaituko da eta orduan ikusiko da finalerdietara eta gero, finalera heltzen diren. Orain arte moduan jokatu gero, lehen mailara igotzeko aukera handiak dituztela uste du Etxeberriak. Hurrengo lehia zapatuan izango dute Elgoibarren Oretako "Batzokiko" bikotearen aurka.

Babajana mendi irteerak agurtzeko

Udaberrian hasi eta tipi-tapa hamaika mendi igo dituzte mendi taldeko lagunek. Urriaren 30ean egingo duten mendi itzulirekin eta ondorengo babajanarekin

agurtuko dituzte irteerak. Kartilak entregatzeko azken eguna urriaren 23a izango da eta bazkarirako izen ematea Iratxon egin behar da hila-ren 16a baino lehen.

EMAITZAK

PELOTA

Gonzalez – Laskurain 12
Xala – Peñagarikano 22

Gonzalez – Laskurain 10
Xala – Barriola 22

Titin III – Laskurain 22
Mtz de Irujo – Zabaleta 10

Atxotegi – Irusta 22
Azpiri – Madariaga 11

PALA

Etxeberria – Gallastegi 25
Altzarrak 22

FUTBOLA

Sora (Erreg. pref.) – Intxaurre K.K. 1-0
Gazteak – Sora (Erreg.) 2-0
Sora (Jub.) – Urki 1-2
Aretxabaleta UDA – Sora (Kad.) 4-0
Eibartarrak – Sora (Jub.) 1-3
Lagun Onak – Sora (Erreg. pref.) 1-1
Sora (Erreg. B) – Ikaiberri 1-3
Sora (Kad.) – Bergara "B" 1-4

AGENDA

PELOTA

Gaur urriak 14, 21:00etan Elgetan
Atxotegi – Irureta
Bergarako bikotea

FUTBOLA

Zapatua 15, 18:15ean Ezozin
Sora (Erreg. pref.) – Orioko F.T.

Zapatua 15, 18:00etan Unben
Eibartarrak F.T. – Sora (Erreg.)

Zapatua 15, 15:45ean Ezozin
Sora (Jub.) – Eibartarrak F.T.

Zapatua 15, 11:30ean Mintxetan
Elgoibar – Sora (Kad.)



Astehenero kirol albisteak

Txoko Kafetegia
Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22. behe,
Soraluze, Tel. 943 75 17 89

Javier Alberdi
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada
Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

ZORION AGURRAK



Markel Lopez
Urrian 1ian urtebete!
Atzo jaio zinala eman arren,
urtebete pasatu da!
Muxu haundi bat etxeko
txikixantzatz!



Alexia Oliveiri
Urrian 22xan urtebete!
Familixan eta bere anai
Eukenen partez, muxu eta
besarkada haundi bat!



Irati Hernandez
Urrian 14an 4 urte!
Zorionak pituxi, ondo pasatu
eguna! Muxu haundi bat!
Asko maitte zaittugu!
June, aitatxo eta amatxo!



Zorionak Joni!!
Mendizabalgo ttiki haundixa!
Segi inguratzen zaittuen
mendi eta bazterrak
maitatzen, eta askatasun
haizeez inguruak ziprziintzen!
Muxu pilaaa, lagunak!



Koldo Heriz
Irailan 4an aitta izan zinan eta
urrian 17xan 31 urte beteko ditzuzu!
Zorionak eta muxu haundi bat
familixa bixen partetik!



**Maddi Mtz de Ordoñana eta
Haran Iabar**
Ekainan 16xan eta Irailan 29xan jaixuak!
Ongi etorri gure ondora bikote! Jarraitu deigun
"Patatalandia" Plaentxiartzen!!

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:**
"Barazki mokadu goxoak" errezeta liburua.



- **Irabazlea: Iñaki Alberdi**
- **Nuria Martin**, Criado urdaitegiko langilea da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



Nola egin zen ikusi nahi badezu zozketaren ondoren igoko dugu bideoa



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**



Soraluzeko Kooperatiba Elkartea

100 URTE 1910 - 2010

943 75 13 45



TXURITXU KAFETEGIA

Mendi landiraan betetara dago berrikarvontat lanera. Aste, goxoki, pastai ta apuri jartzen giza aldira.

Berrikarvontat solai gonduko eskaintza garagura etxeri izate zara inguruetan espere dago berri landerite arantza

25 urte zuegn zerbitzura zuzi esker.

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Encarna Arrizabalaga

60. HAMARKADAKO NESKA GAZTIAK


1963ko udabarriko egun eguzkitsu batian pasiatzera juan eta ederrak baino ederrago apainduta erretratua etara zeban seikote honek Plaza Zaharreko Banco Gipuzcoanoko eskaileretan. Sasoi hartan 16 urte inguru izango zittuen. 60. hamarkadako modak agindutako moduan, belaunera arte luzatutako tauladun gonak eta jaka amerikarrak ziran nagusi. Erretratuak 48 urte beteko ditte aurten.

Argazkixan, ezkerretik eskumara: Cristina Aranzeta, Maria Mercedes Inza, Blanca Mari Gallastegi, Merche Altuna, Charo Argarate eta Encarna Arrizabalaga.

Eskela edo oroigarria aldizkarian ipintzeko,
pasatu bulegotik edo jarri harremanetan gurekin.

943 75 13 04 edo aldizkaria@pilpilean.com

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK

U220 MANIFESTAZIO NAZIONALA

BILBO

LA CASILLATIK 17:30ean



EUSKAL HERRIAK KONPONBIDEA NAHI DU

Autobusa egongo da:
16:30ean Errabalgo geltokitik

Izena emoteko: Gaztelupe, Arrano eta Bolia.

ZABALDU ATEAK
PUERTAS ABIERTAS • PORTES OUVERTES

**GERNIKA
AKORDIOA**

GILTZA GARA
SOMOS LA LLAVE • NOUS SOMMES LA CLÉ